

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

Arabako Batzar Nagusien lan publikoaren eskaintza 2019rako

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak, maiatzaren 14an egindako bilkuran, honakoa erabaki zuen:

Lehena.

1. Onestea Arabako Batzar Nagusien Administrazio Orokorraren zerbitzuko funtzionarioen lanpostuen lan-eskaintza. Lanpostuok erabaki honen eranskinean adierazten dira.

2. Hautaketa-prozesuak arrazoikoago eta eragingarriago bihurtzeko, erabaki honetan jasotako lanpostuak 2017ko lan publikoaren eskaintzako lanpostuei gehituko zaizkiei, zeina onetsi baitzen Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaren 2017ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez.

Bigarrena. Aipaturiko eranskinean zehazten da zein lanpostuk duen nahitaezko hizkuntz eskakizuna. Euskara-eskakizuna ezinbestekoa izango da halakoetan prozesura sartzeko.

Hirugarrena. Sartzeko sistema orokorra lehiaketa-oposizioa izango da.

Laugarrena. Eskaintako lanpostuetara sartzeko prozedura eta betekizunak deialdi bakoitzean zehaztuko dira, Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaren erabaki bidez onetsiko diren oinarrien arabera.

Bosgarrena. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, hautaketa-prozesuok gehienez 3 urteko epean konbokatu beharko dira, iragarki hau ALHOOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena.

1. Erabaki hau eta bere eranskina Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean eta ALHAOn argitaratzea.

2. Lan publikoaren eskaintzaren laburpen bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu.

ERANSKINA

Arabako Batzar Nagusien lan publikoaren eskaintza 2019rako

KIDEGOTEKNIKO ADMINISTRATIBOA

1 lanpostu, txanda librea

— Administrari-lanpostu 1

- Batxilergoa, Teknikoa edo baliokidea
- 3. Hizkuntza-eskakizuna, nahitaezkoa

LAGUNTZAILETEKNIKOEN KIDEGOA

1 lanpostu, txanda librea

– Mandatari-gidari lanpostu 1

- Titulazioa: derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatua
- 2. Hizkuntza-eskakizuna, ez nahitaezkoa

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 14a

Lehendakaria

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA